

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktuak indarkeriaren arazoari egingo dio aurre. Horretarako Gipuzkoa mailan hasiko gara gure produktuak saltzen, lehenik ea arrakasta duen jakiteko. Lote bidezko produkzioa erabiliko dugu gure ekoizpenerako, produktu berdinen kopuru txiki bat beharrezkoa den heinean produzituko dugu.

Tokiko hornitzaileak aukeratuko ditugu. Gure produktua, hasiera batean behintzat, Gipuzkoan eskainiko dugu, Gipuzkoako Foru Aldundia gurekin batera joatea behar dugu eta balioa ere gure lurraldean sortu nahi genuke: Gipuzkoar enpresa izango gara, Gipuzkoar emakumeei zuzendua eta Gipuzkoan etekinak sortzen dituena.

Ekoizpenari dagokionez, chip-ak Miramongo Parke Teknologikoak kokaturiko enpresa txiki batek egingo dizkigu. Argi dago ekoizpena kopuru handian eta Asia inguruan merkeago izango litzatekela, baina garraioan aurreztuko genuke eta chip-ak eman ditzaken arazoen aurrean edo mantenu mailan, hornitzailearekin nolabaiteko konpromezua lortuko genuke. (Inguruan etekina lortzeko bokazioa ahaztu gabe).

Garrantzitsua ere, webgune bat edukitzea. Honen diseinua inguruko enpresa betetan azpikontratatu genuke, baita honen mantenua ere. Webgunean, produktuari buruzko informazioaz gain, hau erosteko aukera emango genuke eta edo ahal izateko bi modu egongo lirateke: Gure bulegotan, doanik. Helburua 3500 emakumeetara iristea izango litzatekela aipatu dugu, baina hasiera batean 1000 unitateko ekoizpena egingo genuke.